



## **2017ko Gizarte Larrialdietarako laguntzak emateko irizpena.**

Gizarte Ongizateko informazio batzordean, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita zortzian izandako bileran, EH BILDU (3), EAJ/PNV (2), AI (1) eta Herriaren Eskubidea SQ-2D (1) alderdiko ordezkarien aldeko botoekin, aho batez erabaki zuten aldeko IRIZPENA ematea 2017 ko Gizarte Larrialdiko laguntzak emateko irizpideei, eta Osoko Bilkurari ERABAKI hau hartzeko proposamena egitea:

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legean eta 2011ko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan gizarte-larrialdietarako laguntzak definitzen dira aldiari behingoak ez diren laguntzeko prestazio ekonomiko bezala, berariazko ohiko edo ezohiko gastuei aurre egiteko nahikoa baliabiderik gabeko jendearentzako bideratutakoak, gizarte bazterketako egoerei aurre hartzeko, haiek ikiditeko edo arintzeko beharrezkoak direnak.

Eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2017ko martxoaren 8ko Aginduaren arabera finkatzen dira 2017. urterako gehieneko zenbatekoak gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusita dagoen berariazko gastu bakoitzean, estaldura ekonomikorako esleitutako kredituak banatzeko irizpideak eta EAEko Lurralde Historikoetako eta udaletxeetako bakoitzari 2017rako dagokion aurrekontu-muga.

Beste alde batetik, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko gizarte zerbitzuen jarduera esparruaren barruan daude Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Zaldibar eta Otxandiko oinarrizko unitateak.

Horregatik, gizarte-larrialdietarako laguntzak kudeatzerakoan beharrezkoa da oinarrizko unitateetan jokatzeko zenbait irizpide bateratu adostea, helburu bezala hartuta

## **Criterios para la concesión de ayudas de emergencia social en el ejercicio 2017.**

La comisión informativa de bienestar social, en sesión de veintiocho de marzo de dos mil diecisiete, con el voto favorable de los representantes de EH BILDU (3), EAJ/PNV (2), AI (1) y Herriaren Eskubidea SQ-2D (1), acordó DICTAMINAR favorablemente los criterios de otorgamiento de ayudas de emergencia social en el ejercicio 2017, y proponer a la Junta Plenaria la adopción del siguiente ACUERDO:

La Ley 18/20008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social y el Decreto 4/2011, de 18 de enero, definen las ayudas de emergencia social como prestaciones no periódicas de naturaleza económica y subvencional destinadas a aquellas personas cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de marginación social.

La Orden de 8 de marzo de 2017, del Consejero de Empleo y Políticas Sociales, establece, para el año 2017, las cuantías máximas para cada uno de los gastos específicos contemplados en las ayudas de emergencia social, los criterios para la distribución de los créditos consignados para su cobertura y el límite presupuestario que, para el año 2017, corresponde a cada uno de los Territorios Históricos y Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por otro lado, el ámbito de actuación de los servicios sociales de la Mancomunidad de la Merindad de Durango comprende las unidades de base de Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Zaldibar y Otxandio.

Por ello, resulta necesario la adopción de unos criterios uniformes de actuación de las unidades de base en la gestión de las ayudas de emergencia social con la finalidad de asegurar



baliabideak modu homogean banatzen direla eta haiek berdintasunezko baldintzetan eskura daitezkeela ziurtatzea, premiazko egoera jakin baten aurrean herritar orok eskubide berberak izateko moduan, bizi den udalerria edozein izanda ere.

Gizarte ongizateko informazio batzordearen aldeko irizpena, bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeta zortzikoa, ezagututa.

Osoko Bilkurak ERABAKI du:

2017. ekitaldian gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko irizpideak onestea.

<b>2017ko larrialdietarako irizpideak.</b>	<b>ekitaldian laguntzak</b>	<b>gizarte-emateko</b>
--	-----------------------------	------------------------

#### **Araubide juridikoa:**

- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.

- 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa (otsailaren 9ko 27/2011 EHAA).

- 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko dekretua aldatzen duena.

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren III. Kapituluko 2., 3. eta 4. atalak.

- AGINDUA, 2017eko martxoaren 8koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena. Honen bidez, ezartzen da zein diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko 2017. urtean gehienez eman daitezkeen diru-zenbatekoak eta laguntza horietara bideratutako kredituak banatzeko irizpideak; horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzarentzat aurrekontuan ezarritako

una distribución homogénea de los recursos y el acceso a las mismas en condiciones de igualdad, de forma que todo ciudadano tenga los mismos derechos ante las mismas situaciones de necesidad, independientemente del municipio de residencia.

Visto el dictamen favorable de la comisión informativa de bienestar social, de veintiocho de marzo de dos mil diecisiete.

La Junta Plenaria, ACUERDA:

Aprobar los criterios de concesión de ayudas de emergencia social en el ejercicio 2017.

**Criterios para la concesión de ayudas de emergencia social en el ejercicio 2017**

#### **Régimen jurídico:**

- Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social.

- Decreto 4/2011, de 18 de enero, de las Ayudas de Emergencia Social (BOPV número 27/2011, de 9 de febrero).

- Decreto 16/2017, de 27 de enero, de modificación del Decreto de ayudas de emergencia social.

- Secciones 2ª, 3ª y 4ª del Capítulo III del Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de Renta de Garantía de Ingresos para la determinación de los recursos y patrimonio.

- ORDEN de 8 de marzo de 2017, del Consejero de Empleo y Políticas Sociales, por la que se establecen, para el año 2017 las cuantías máximas para cada uno de los gastos específicos contemplados en las Ayudas de Emergencia Social, se señalan los criterios para la distribución de los créditos consignados para su cobertura y se fija el límite presupuestario que, para el año 2017, corresponde a cada uno de los Territorios Históricos y Ayuntamientos de la Comunidad



gehieneko zenbatekoak finkatzen dira 2017. urterako.

### **Printzipioak:**

Eskubidearen prestazioen lehentasuna:

- Gutxieneko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE).
- Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO).
- Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa.

**Gizarte-larrialdietarako laguntzaren kontzeptua:** Laguntza ekonomikoa, ez aldizkakoa, gastu zehatzetarako, ohiko nahiz ohiz kanpokoetarako, gizarte-bazterketako egoerei horiei aurrea hartzeko, horiek saihesteko edo arintzeko.

2017ko martxoaren 8ko aginduko zioen azalpenak dienez, «Larrialdietarako laguntza» kontzeptuaren funtsa da, hain zuzen ere, une jakin batean (denboraldi bat) eta norberaren borondateaz besteko edo aparteko arazoak eraginda sortutako baliabide ekonomikorik gabeko edo gutxiko egoera artatzeko premia larria». (...)

«Laguntzak emateari dagokionez, abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 50.1 artikulua xedatzen duenez, oinarritzko gizarte-zerbitzuek benetako premia-egoera dagoela eta helburu horretarako kontsignatutako kreditua ere badagoela egiaztatu eta gero emango dira gizarte-larrialdietarako laguntzak».

**Berriazko gastuak.** Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 3. artikulua.

Autónoma del País Vasco.

### **Principios:**

Carácter prioritario de las prestaciones de derecho:

- Renta de Garantía de Ingresos mínimos (RGI).
- Prestación complementaria de vivienda (PCV).
- Derecho subjetivo de acceso a una vivienda.

**Concepto de ayuda de emergencia social:** Ayuda económica, de carácter no periódico, para gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social.

Como señala la exposición de motivos de la Orden de 8 de marzo de 2017 "la clave del concepto de ayuda de emergencia social es precisamente la necesidad perentoria y urgente de atender una situación de carencia o estrechez de recursos económicos que se produce en un momento dado (plazo temporal), motivada por causas ajena o sobrevenidas" (...)

"Por lo que respecta a la concesión de estas ayudas, el art. 50.1 de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, dispone que las AES se concederán, en todo caso, previa comprobación de la existencia de una situación real de necesidad por parte de los servicios sociales de base y de la existencia de crédito consignado para esa finalidad".

**Gastos específicos.** Artículo 3 del Decreto 4/2011, de 18 de enero, de las ayudas de emergencia social.



## **mantentzeko gastuak.**

**A.1.Alokairu-gastuak.** 2017ko martxoaren 8ko aginduaren 2.1 a) artikulua.

### **Urteko gehieneko diru-zenbatekoak.**

1.- 2017. urtean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen gehieneko zenbatekoak —aurreko artikuluan aipatzen direnak—, Bizikidetzaren Unitate bakoitzeko (hemendik aurrera, BU) eta gastu espezifiko bakoitzerako, honako hauek dira:

#### a) Alokairu-gastuengatik:

a.1.- Maizter bakar bat duten etxebizitzaren kasuan, edo BU eskatzaile bakarra izanik, maizter bat baino gehiagoko edo azpierreant emandako etxebizitzaren kasuan, hileroko gehieneko kopurua 250 € izango da, eta ezin izango du etxebizitzaren alokairuaren % 70 gainditu.

a.2.- Etxebizitzan maizter bat baino gehiago badago edo azpierreant egin badira, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarrean den araudian xedatutakoarekin koherente izanik, eta bizikidetzaren unitateen kopuruarekin zatiuko da. Bi bizikidetzaren unitaterentzat ezarritako muga hileko 125 euro izango da baina biak batuta ezin izango dute etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80 gainditu.

a.3.- Etxebizitzan ostatu- edo apopilotza-kontraturik egonez gero, kontratu mota hori duen eskatzaile kopurua bi izango da gehienez, aurrekoarekin koherente izanik, eta laguntzaren muga hileko 125 euro izango da.

a.4.- Legez eraturako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, muga hileko 250 euro izango da. Kasu horretan, BUren muga ez da bi izango, baizik eta establezimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera izango da.

Zenbait BUri azpierreantatuz gero,

## **mantenimiento de vivienda habitual.**

**A.1.Gastos de alquiler.** Art. 2.1 a) de la Orden de 8 de marzo de 2017

### **Cuantías anuales máximas.**

1.- Para el año 2017 las cuantías anuales máximas de las Ayudas de Emergencia Social, por unidad de convivencia (en adelante UC), destinadas a cada uno de los gastos específicos a que se refiere el artículo anterior, son las siguientes:

#### a) Por gastos de alquiler:

a.1.- En los casos de viviendas con un solo arrendatario, o aquellas coarrendadas o subarrendadas con una sola UC solicitante el tope máximo será de 250 euros mensuales, sin poder superar el 70% del precio del alquiler de la vivienda.

a.2.- Si la vivienda está coarrendada o hay en ella subarrendamientos, no se admitirán más de dos solicitudes, en coherencia con lo establecido en la normativa vigente, dividiéndose por el número de unidades de convivencia. El límite para dos unidades de convivencia será 125 euros mensuales, sin poder superar entre ambas el 80% del precio del alquiler de la vivienda.

a.3.- Si en la vivienda existen contratos de hospedaje o pupilaje, el límite para el número de solicitudes con este tipo de contratos es de dos en coherencia con lo anterior, el límite de la ayuda será 125 euros mensuales.

a.4.- En los casos de alojamiento en hoteles, hoteles-apartamentos y pensiones legalmente constituidos, el límite será 250 euros mensuales. En este caso el límite de UC no será de dos, sino que vendrá dado por el número máximo de habitaciones legalmente reconocidas del establecimiento.

En caso de subarriendo a varias UC, se



alokairuaren prezioa elkarrekin bizi diren BUen kopuruarekin zatituko da. Zatiketa horren emaitza izango da BU bakoitzak eska dezakeen gehieneko munta.

**A.2. Ohiko etxebizitza erosteko aurretiaz eskatutako kredituen interesen eta amortizazioaren ondoriozko gastuak.** 2017ko martxoaren 8ko aginduaren 2.1 b) artikulua.

Gizarte-larrialdiko egoera baino lehenagoko etxebizitza edo bizitokia erosteko kredituen interesen eta amortizazioaren gastuengatik, 250 euro gehenez hileroko, eta ezin izango da kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren kopuruaren % 70 gainditu.

Kontzeptu horrengatik laguntzak jasotzeko gehieneko aldia bost urteko izango da, 2017/01/01etik aurrera zenbatzen hasita, bizikidetzaren unitatea dagoen aldi osoan edo etxebizitza beraren edo ohiko etxebizitzaren gainean eskatutako kreditua ordaintzeko aldi osoan.

Ezarritako muga hau ez zaie aplikatuko zahartzaroko pentsioen titularrei. (Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 12c) artikulua).

**A.3. Energia gastuengatik, arindar, gas edo etxerako beste erregai-horniqueta batzuek eraginak.** 2017ko martxoaren 8ko aginduaren 2.1c) artikulua.

Urteko gehieneko kopurua 900 euro izango da.

BU bi egonez ero, gastua 450 euro izango da bakoitzeko.

**A.4. Ohiko etxebizitza edo bizilekua izan eta mantentzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuegaitik.** 2017ko martxoaren 8ko aginduaren 2.1 f) artikulua.

dividirá el precio del alquiler por el número de UCs convivientes. El resultado de dicha división será la cuantía máxima a solicitar por cada UC.

**A.2. Gastos de intereses y amortización de créditos contraídos con anterioridad para la adquisición de vivienda habitual.** Art. 2.1 b) de la Orden de 8 de marzo de 2017

Por gastos derivados de intereses y de amortización de créditos, contraídos con anterioridad a la situación de emergencia social, como consecuencia de la adquisición de una vivienda o alojamiento, hasta 250 euros mensuales, sin poder superar el 70% del montante de los intereses mensuales y la amortización mensual del crédito.

El período máximo para la percepción de ayudas por este concepto será de 5 años, contados a partir del 01/01/2017, como suma total durante todo el período de existencia de la unidad de convivencia o para el abono de un crédito sobre la misma vivienda habitual.

Este límite no será de aplicación a las personas que sean titulares de pensiones de vejez. (Artículo 12 c) del Decreto 4/2011, de 18 de enero, de las Ayudas de Emergencia Social).

**A.3. Gastos de energía, debidos al suministro eléctrico, de gas u otro tipo de combustible de uso doméstico.** Art.2.1c) de la orden de 8 de marzo de 2017

La cuantía anual máxima será de 900 euros.

En el caso de 2 UC, el gasto será 450 euros por cada una.

**A.4. Otros gastos necesarios para el disfrute y mantenimiento de la vivienda.** Art.2.1 f) de la Orden de 8 de marzo de 2017.



Kontzeptu honetan sartzen dira uraren, zaborraren eta estolderiaren gastuak eta hiri-zein landa-eremuko ondazun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak, jabeakideen erkidegoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin lotutakoak ere.

Urteko gehieneko kopurua 900 euro izango da.

BU bi egonez ero, gastua 450 euro izango da bakoitzeko.

#### **A.5.ohiko etxebizitzaren oinarrizko ekipamenduen gastuak.**

**Altzariak eta linea zuriko etxetresna elektrikoak gastuak.** 2017ko martxoaren 8ko aginduaren 2.1 d) artikulua.

Diru-laguntzari dagokionez, erreferentiazko prezio hauen arabera baloratuko da:

- Sukaldea labearekin: 250 €-
- Hiru su dituen sukaldea: 100 €
- Arropa-garbigailua: 400 €
- Hozkaikua: 450 €
- Ur-berogailua: 300 €
- Galdara: 1000 €
- Berogailua: 120 €
- 90ko ohe osoa: 200 €
- Ohatze osoa: 350 €
- 90ko koltxoia: 150 €
- Ohe bikoitz osoa: 400 €
- 135-150eko koltxoia: 250 €
- Laminazko somierra, 90-135-150: 250

Este concepto incluye gastos de agua, alcantarillado, basuras, impuesto sobre bienes inmuebles de naturaleza urbana y rústica, así como los derivados de la cuota de comunidad de propietarios y los relacionados con la seguridad de la vivienda.

La cuantía anual máxima será de 900 euros.

Ene el caso de 2 UC, el gasto será 450 euros por cada una.

#### **A.5. Gastos de equipamiento básico de la vivienda habitual.**

**- Mobiliario y Electrodomésticos línea blanca.** Art. 2.1 d) de la Orden de 8 de marzo de 2017.

La concesión se valorará en función a los siguientes precios de referencia:

- Cocina con horno: 250 €
- Cocina tres fuegos: 100 €
- Lavadora: 400 €
- Frigorífico: 450 €
- Calentador: 300 €
- Caldera: 1000 €
- Estufa: 120 €
- Cama completa de 90: 200 €
- Litera completa: 350 €
- Colchón 90: 150 €
- Cama completa matrimonio: 400 €
- Colchón 135-150: 250 €
- Somier laminas:90-135-150:150 €



€.

-Sehazka: 90 €

-Arropa armairuak: 250 €

-Mikrouhina: 50 €

-Sukaldeko mahaia eta aulkial: 150 €

-Etxeko tresnak: 100 €

-Sofa: 400 €

Urteko gehieneko kopurua 1.850 euro izango da.

BU bi egonez gero, urtean gehienez 925 euro bakoitzeko.

**-Etxebizitzaren oinarrizko instalazioen egokitzapena eta konponketa.** 2017ko martxoaren 8ko aginduaren 2.1 e) artikulua.

Urteko gehieneko kopurua 1.850 euro izango da.

BU bi egonez gero, urtean gehienez 925 euro bakoitzeko.

Bizigarritasunerako eta oinarrizko ekipamendurako gastuen urteko zenbatekoa 1.850 eurokoa izango da; gutxienez bi aurrekontu aurkeztuko dira, eta merkeena onartuko da. Aurrekontuetako batek, nahitaez, Amankomunazgoko udalerrri bateko profesional, saltoki edo establezimendu batek egindakoa izan beharko du.

**Prestazioen arteko bateragarritasunen araubidea.** 2017ko martxoaren 8ko aginduaren 2.2 artikulua.

Edonola ere, kontzeptu hauengatik jasoko da GLL:

a) Alokairu-gastuak.

- Cuna: 90 €

- Armarios roperos: 250 €

- Microondas: 50 €

- Mesa y sillas de cocina: 150 €

- Menaje: 100 €

- Sofá: 400 €

La cuantía anual máxima será de 1.850 euros.

En el caso de 2 UC hasta 925 euros anuales cada una.

**-Adaptación y reparación de instalaciones básicas de la vivienda.** Art. 2.1 e) de la Orden de 8 de marzo de 2017.

La cuantía anual máxima será de 1.850 euros.

En el caso de 2 UC hasta 925 euros anuales cada una.

La cuantía máxima anual por gastos de habitabilidad y equipamiento básico será de 1.850 euros anuales y se deberán aportar al menos dos presupuestos, aprobándose el más económico. Uno de los presupuestos deberá ser necesariamente de un profesional, comercio o establecimiento de alguno de los municipios de la Mancomunidad.

**Régimen de compatibilidades entre prestaciones.** Art. 2.2 de la Orden de 8 de marzo de 2017

En todo caso, la percepción de AES por los conceptos de

a) Gastos de alquiler.



b) Ohiko etxebizitza erosteko aurretiaz eskatutako kredituen interesen eta amortizazioaren ondoriozko gastuak.

c) Energia gastuak

d) Ohiko etxebizitza mantentzeko bestelakoak gastuak

e) Ohiko etxebizitzaren oinarritzko ekipamenduaren gastuak.

f) Ohiko etxebizitzaren oinarritzko instalazioak konpontzeko gastuak.

**BATERAEZINA** da EPOrekin eta alokairu-gastuak DBE jasotzearekin bateraezinda da.

Ohiko etxebizitza gozatzeko eta mantentzeko gastuen kontzeptu batzuetarako gizarte-larrialdietarako laguntzak **BATERAGARRIAK** izango dira, urtean gehienez 3.500 euroko zenbaterako edo familia-unitatearen baliabideen mailagatik 3.500 euroen gainean dagokion ehunetara iritsi arte edota gastu efektiboaz gainekoa. Edozein kasutan ere, kontzeptu bakoitzerako finkatutako gehieneko mugak errespetatu behar dira.

#### **Kasu bereziak:**

##### **a) Babes publikoko etxebizitzak.**

Eusko Jaurlaritzak, bestelako herri-administrazioek edo haien mendeko beste erakunde batzuek sustatutako BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN kasuan, ez da GLLrik ordainduko etxebizitza edo bizitokia alokatzeagatik edo erosteko kredituen interesen eta amortizazioaren ondoriozko gastuengatik, udalerrri bakoitzeko oinarritzko gizarte-zerbitzuek salbuespenezko egoeratzat jotzen dituzten eta eskaera-espeditenteari atxikitako gizarte-txosten bidez justifikatuta dauden kasuetan izan ezik.

Salbuespen gisara, laguntzak eman ahalko dira etxebizitzaren alokairua edo hipotekaren prezioa eskatzailearen baliabideak

b) Gastos de intereses y amortización de créditos contraídos con anterioridad para la adquisición de vivienda habitual.

c) Gastos de energía

d) Otros gastos de mantenimiento de la vivienda habitual.

e) Gastos de equipamiento básico de la vivienda habitual.

f) Gastos de reparación de instalaciones básicas de la vivienda habitual.

Es **INCOMPATIBLE** con la percepción de PCV y las ayudas para gastos de alquiler son incompatibles con la percepción de la RGI.

Serán **COMPATIBLES** las ayudas de emergencia social para distintos conceptos de gastos de disfrute y mantenimiento de vivienda habitual hasta un importe máximo de 3.500 euros anuales, o el % que le corresponda sobre los 3.500 euros por el nivel de recursos de la unidad familiar o sobre el importe del gasto efectivo. En cualquier caso, deberán respetarse los límites máximos establecidos para cada concepto.

#### **Supuestos especiales:**

##### **a) Viviendas de protección pública.**

En los casos de VIVIENDAS DE PROTECCIÓN PÚBLICA, promocionadas por el Gobierno Vasco u otras Administraciones Públicas o entidades dependientes de ésta, no se abonarán AES por concepto de alquiler ni por gastos de intereses y de amortización de créditos contraídos como consecuencia de la adquisición de una vivienda o alojamiento, salvo situaciones excepcionales entendidas así por los servicios sociales de base de cada municipio y justificadas mediante informe social adjunto al expediente de solicitud.

Excepcionalmente podrán concederse ayudas en los supuestos en que el precio de





baino % 30 handiagoa bada, gertatzen diren inguruabarrak balioesten dituen gizarte-txostena aldez aurretik emanda. Edozein kasutan, laguntza gehiegizkoaren gainean aplikatuko da, hau da, alokairuaren prezioaren eta baliabideen arteko diferentziaren gainean.

**b) Ohiko bizilekua ez diren beste etxebizitza batzuk.** 4/2011 Dekretuaren 5.2 artikulua. 16/2017 Dekretuak 4. Artikuluan aldatua.

Ezin izango dituzte baliatu alokairu-gastuak edo ohiko etxebizitza edo bizilekua erosteko hartutako kredituen interesetatik edo amortizaziotik eratorritako gastuak ordaintzera bideratutako gizarte-larrialdietarako laguntzak, eskatzaileak edo haien bizikidetzaren unitateko beste edozein kide honako egoera hauetakoren batean baldin bada:

a) Etxebizitza bat alokairuan edo jabetzan izatea, eta etxebizitza hori babes publikoko etxebizitza motaren batean sartuta egotea, Eusko Jaurlaritzak edo beste Administrazio Publiko batzuek edo horien mendeko erakundeek sustatua, eskaera egin zenean indarrean zegoen legerian aurreikusitakoaren arabera, salbu eta gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko dekretua aldatzen duen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuan ezarritakoa.

b) Etxebizitza bat jabetzan edo usufruktuan izatea eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatzea beste etxebizitza baten alokairu-gastuei aurre egiteko, azken hori haren ohiko bizitokia izanda ere, salbu eta banantzeagatik edo dibortzioagatik eta beste arrazoi batzuegatik, hala nola utzarazpena, beren ohiko bizilekua utzi behar izan duten edo etxeko indarkeriaren biktima diren pertsonak badira, besteak beste, edo desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria ex den ohiko etxebizitza utzi behar izan duten pertsonak badira. Horretarako, mugikortasun-arazoak aitortuta

alquiler o hipoteca de vivienda sea superior al 30% de los recursos del solicitante, previo informe social en el que se valorarán las circunstancias que concurren. En todo caso la ayuda se aplicará sobre el exceso, esto es, sobre la diferencia entre el precio de alquiler y los recursos.

**b) Otras viviendas distintas de la residencia habitual.** Artículo 5.2 del Decreto 4/2011. Modificado por el art.4 del Decreto 16/2017.

No podrán acceder a las ayudas de emergencia social que se destinen a la cobertura de gastos de alquiler o gastos derivados de intereses o de amortización de créditos contraídos para la adquisición de la vivienda o alojamiento habitual las personas solicitantes cuando ellas mismas o cualquiera de las personas miembros de su unidad de convivencia se encuentren en alguna de las siguientes situaciones:

a) Tener una vivienda en alquiler o en propiedad que se considere incluida en alguno de los tipos de vivienda de protección pública, promocionada por el Gobierno Vasco u otras Administraciones públicas o entidades dependientes de éstas, en los términos previstos en la legislación vigente en el momento de la solicitud, con excepción de lo previsto en el Decreto 16/2017 de 17 de enero, de modificación de Decreto de ayudas de emergencia social.

b) Disponer de una vivienda en propiedad o en usufructo y solicitar las ayudas de emergencia social para la cobertura de gastos de alquiler de otra vivienda, aun cuando esta última constituyera su residencia habitual, salvo cuando se trate de personas que se hubieran visto obligadas a dejar su domicilio habitual por separación o divorcio u otras causas como desahucio o ser víctima de violencia doméstica, o personas que hayan tenido que abandonar su domicilio habitual por falta de accesibilidad por discapacidad. Ello, se tendrá que acreditar con valoración de discapacidad en el que tenga reconocido los problemas de movilidad, y



dituen desgaitasunaren balorazioarekin egiaztatu beharko da. Gauza bera gertatzen da mugikortasun-arazoak dituzten 65 urtetik gorako adinekoen mendekotasun-balorazioarekin.

**B. Bizikidetzaren unitateko kide baten edo batzuen oinarritzko beharizanean dagozkien eta sistema publikoek estaltzen ez dituzten gastuak. (2017ko martxoaren 8ko aginduaren 2.1.g artikulua)**

**B.1. Janzteko gastuak**

**B.2. Hezkuntza- eta prestakuntza-gastuak.**

Matrikulak eta/edo hileko kuotak hezkuntza arautuan eta/edo lanbide-heziketan, bai ikastetxe publiko, pribatu bai itunduetan, aurretiaz oinarritzko gizarte-zerbitzuen txostena aurkeztuta.

Matrikularen edo beste osagarri batzuen gastuak lanerako prestakuntzarako ikastaroak lan-merkatuan sartzea erraztu dezaketenean, aurretiaz oinarritzko gizarte-zerbitzuen txostena aurkeztuta, eta DBErik jasotzen ez badute.

Adingabekoen eskolaz kanpoko ekintzetatik eratorritako gastuak.

**B.3. Osasun arretako gastuak.**

Betaurrekoetarako gastuen gehieneko zenbatekoa 250 euro izango da.

Audiofonoak eskatuz gero, aurretiaz desgaitasun edo mendekotasunaren balioespena eta GIZATEKen laguntza-eskaeraren ebazpena beharrezkoak izango dira.

Haginak zaintzeko laguntzek enpasteak, endodontziak, ken daitezkeen protesiak edo osasunari lotutako arrazoiengatik beharrezkoak diren beste tratamendu batzuk hartuko dituzte barne. 1000euroko muga ezarri da BUteko onuradun bakoitzeko, eta BU bakoitzaren urteko muga 1850 euro da.

también personas mayores de 65 años con valoración de dependencia con problemas de movilidad.

**B. Gastos relativos a necesidades primarias de una o más personas miembros de la unidad de convivencia no cubiertos por los diferentes sistemas públicos. (art.2.1.g de la orden de 8 de marzo de 2017)**

**B.1. Gastos de vestido**

**b.2. Gastos de educación y formación.**

Matrículas y/o cuotas mensuales de educación reglada y/o formación profesional en centros públicos, privados o concertados, previo informe motivado de los servicios sociales de base.

Gastos de matrícula u otros complementarios en cursos de formación ocupacional cuando puedan facilitar la incorporación al mercado laboral, previo informe motivado de los servicios sociales de base, siempre y cuando no sean perceptores de RGI.

Gastos derivados de actividades extraescolares de menores.

**B.3. Gastos de atención sanitaria.**

la cuantía máxima para gastos de gafas será de 250 euros.

Las solicitudes de audífonos exigirán valoración previa de discapacidad o dependencia y resolución de la solicitud de ayuda de GIZATEK

Las ayudas para arreglos dentales comprenderán empastes, endodoncias, prótesis removibles u otros tratamientos necesarios por motivos de salud. Se establece un límite de 1000€ por beneficiario de UC, siendo el tope de UC 1850€ anual.



Eskatzaileek gutxienez bi aurrekontu aurkeztu beharko dituzte, eta merkeena onartuko da. Aurrekontuetako batek, nahitaez, amankomunazgoko udalerrri bateko profesional, saltoki edo establezimendu batek egindakoa izan beharko du.

Salbuespen gisa, eta Gizarte Laneko Sailak txosten arrazoitua aurkeztu ondoren, GLLak emango dira adingabeentzako arreta psikologikorako, 6 urteko adinetik aurrera egindako errehabilitazioa eta estimulazioa barne hartuta.

#### **B.4. Elikadura-gastuak.**

Gizarte Laneko Sailaren txosten arrazoitua edukita, honako zenbateko hauek eman ahal izango dira:

125 euro hilean pertsona batentzat  
200 euro hilean pertsona birentzat  
300 euro hilean hiru pertsona edo gehiagorentzat.

Laguntza horiek gehienez 6 hilabeterako eman ahal izango dira.ezin luza daitekeena.

#### **B.5. Jatorrizko herrialdera borondatez itzultzeko gastuak.**

Salbuespen gisa emango dira, baldin eta aurretiaz Previe programan uko egiteko ebazpena eman bada eta/edo, gizarte-langileak txosten arrazoitua egin badu.

Jatorrizko herrialdera borondatez itzultzeko laguntzak jaso dituenak ezin izango du hurrengo bost urteetan GLLrik jaso.

**C. Ohiko etxebizitza mantentzeagatiko eta lehen mailako beharrianengatiko aurreko zorpetze-gastuak.** 2017ko martxoaren 8ko aginduaren 2.1 h) artikulua.

Los solicitantes deberán aportar al menos dos presupuestos, aprobándose el más económico. Uno de los presupuestos deberá ser necesariamente de un profesional, comercio o establecimiento de alguno de los municipios de la mancomunidad.

Excepcionalmente, previo informe motivado por el **trabajador social** se concederán AES en concepto de atención psicológica a menores, incluyendo rehabilitación y estimulación a partir de los 6 años.

#### **B.4. Gastos de alimentación.**

Se podrán conceder, con informe motivado del trabajador social las siguientes cuantías:

125 euros/ mes para 1 persona  
200 euros/ mes para 2 personas  
300 euros/mes para 3 o más personas.

El periodo máximo a conceder será de 6 meses no prorrogable.

#### **B.5. Gastos de retorno voluntario al país de origen.**

Se concederán, excepcionalmente, previo resolución denegatoria del programa Previe y/o con informe motivado del trabajador social.

El receptor de ayudas por retorno voluntario no podrá recibir AES en los 5 años posteriores

**C. Gastos de endeudamiento previo por los conceptos de mantenimiento de vivienda habitual y necesidades primarias.** Art. 2.1 h) de la Orden de 8 de marzo de 2017.



### **DBE edota EPO etetearen eragina GLLen kudeaketan.**

(2013erako GLL aginduari buruzko eta GLLen kudeaketaren inguruko argibideei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 2013ko zirkularraren 12. puntuak arautzen du.)

Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak 7.b) artikuluan dioenez, «laguntzaren onuradunen betebeharra da dagokion ebazpena eman aurretik, baita laguntza jaso bitartean ere, eskatzaileari edo horren bizikidetz-unitateko beste edozein kideri legokiokoen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea».

Artikulu hori oinarri hartuta, titularrak eta/edo onuradunek euren betebeharrak urratzeagatik DBE edota EPO eteten bada, goian aipatu den artikuluko betebeharraren urratze gisa interpretatuko da, eta, horrenbestez, ezin izango da GLLrik eskuratu.

### **Eskaeren aldiberekotasuna eta GLL eska ditzaketen BUen gehieneko kopurua.**

Etxebizitza berean bizi diren **BI** BU gehienez eska ditzakete diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemako prestazioak, GLLak barne hartuta. Hortaz, zenbaketa hori egiteko, sistemako edozein prestazio kobratzeko sortutako BUak izango dira kontuan: DBE, EPO edo baita GLLak ere. Dena den, lehentasuna izango du zuzenbideko prestazioak —alegia, DBE eta EPO— jasotzeak.

Laguntzak antzinatasunaren arabera emango dira, baldin eta arrazoitutako gizarte-txostenik ez badago. (6.1.a. 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa)

### **Incidencia de la suspensión de RGI y/o PCV en la gestión de AES.**

(Regulado por el punto 12 de la circular de GV sobre Orden AES de 2013 y aclaraciones relativas a la gestión de AES.)

Tal y como dice el Decreto 4/2011, de 18 de enero, de las Ayudas de Emergencia Social, en su art.7.b) "es obligación de la persona beneficiaria hacer valer, tanto con carácter previo al dictado de la correspondiente resolución como durante el periodo de percepción de la ayuda, todo derecho o prestación de contenido económico que le pudiera corresponder a la persona solicitante o a cualquiera de las personas miembros de su unidad de convivencia. "

En base a dicho artículo, la suspensión de la RGI y/o PCV por motivo de incumplimiento de obligaciones por parte del titular y/o beneficiarios, se interpretará como incumplimiento de obligación del artículo arriba mencionado, con lo que conlleva la imposibilidad de percibir AES.

### **Concurrencia de solicitudes y número máximo de UC que pueden solicitar AES.**

El número máximo de UC que pueden solicitar prestaciones del sistema vasco de garantía de ingresos, incluidas las AES, por un mismo domicilio será de **DOS**. Por lo tanto, para el citado cómputo se tendrán en cuenta las UC formadas para el cobro de cualquiera de las prestaciones del sistema de RGI, PVC o las propias AES, teniendo prioridad la percepción de las prestaciones de derecho, la RGI y la PVC.

El otorgamiento de la ayuda se realizará por orden de antigüedad de la solicitud, excepto informe social motivado. (art. 6.1. a. del Decreto 4/2011, de 18 de enero, de las Ayudas de Emergencia Social)



### **Izapidetzearen prozedura orokorra.**

Eskaera aurkezteko epea 2017-03-1etik 2017-12-11era izango da, biak barne.

**Laguntzaren egiazko zenbatekoa.** (Ikusi 4/2011 Dekretuaren 10., 11. eta 12. artikulua)

Eskabide bakoitzean laguntzari esle dakioken zenbatekoa eskatzailearen baliabideen arabera 2017ko martxoaren 8ko aginduaren **I. eranskinean** ezartzen den ehuneko aplikatuz lortutako emaitza izango da. Ehuneko hori kontzeptu bakoitzari aplikatu dakioken gehienezko muntaren gainean aplikatuko da, edo benetako gastuaren kopuruaren gainean, kopuru hori kontzeptuko gehienezko kopurua baino txikiagoa bada.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko 4/2011 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutako ondorioetarako, 2015eko ekitaldian amankomunazgoak **%100 eko murrizketak egingo** dizkio eskatzaile bakoitzari aplikatu behar zaion zenbatekoari, ondare higigarriak 12.000 euro baino gehiago izanez gero.

### **Baliabideak eta ondarea zehaztea**

Eskatzailearen eta/edo bizikidetzatutako gainerako kideen edo prestazioen onuradunen baliabideak eta ondarea zehazte aldera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren III. kapituluko 2., 3. eta 4. ataletan baliabideak eta ondarea zehazteko xedatutakoarekin bat etorriko da.

Hileko baliabideak gastuei dagozkien hilabeteen kopuruarekin biderkatu beharko dira.

### **Eskabidea eta dokumentazio osagarria.**

4/2011 Dekretuaren 15 eta 16 artikuluan

### **Procedimiento general de la tramitación.**

La solicitudes deberán presentarse entre el 1/3/2017 y el 11/12/2017, ambos incluidos.

**Cuantía efectiva de la ayuda.** (Ver artículos 10-11 y 12 del Decreto 4/2011 )

La cuantía asignable a la ayuda en cada solicitud será el resultado de la aplicación del porcentaje que, en función de los recursos del solicitante, se señala en el **anexo I** de la Orden de 8 de marzo de 2017 sobre la cuantía máxima aplicable a cada concepto, o sobre el importe del gasto efectivo cuando éste sea inferior.

A los efectos previstos en el artículo 11 del Decreto 4/2011 de Ayudas de Emergencia Social, durante el ejercicio 2017 la Mancomunidad **realizará minoraciones** del 100% sobre la cuantía aplicable a cada solicitante en los casos en el que el patrimonio mobiliario supere los 12.000 euros.

### **Determinación de recursos y patrimonio**

La determinación de los recursos y patrimonio de la persona solicitante, y/o de los demás miembros de la unidad de convivencia o beneficiarios de las prestaciones se realizará de conformidad con lo previsto en las Secciones 2ª, 3ª y 4ª del Capítulo III del Decreto 147/2010, de 25 de mayo, de Renta de Garantía de Ingresos para la determinación de los recursos y patrimonio.

Los recursos mensuales deberán multiplicarse por el número de meses al que se asocian los gastos.

### **Solicitud y documentación complementaria.**

La solicitud se ajustará a lo dispuesto en



ezarrita dagoena.

### **Aldizkako gastuetarako GLL emateko gehienezko epea**

2017. urtean, GLL emateko espedienteak sei hilabeteko bi alditan izapidetuko dira (urtarrila-ekaina eta uztaila-abendua).

Lehen tarte igaro ondoren, GLL txosten berria izapidetuko da bigarren seihilekoan. Bertan, eskaera sartuko da, bai eta eskatzailearen egoera balioesteko beharrezkoa den dokumentazio osagarria ere.

### **Ordainketak**

Aldizkako gastuetarako GLLak hiruhileko naturaletan ordainduko dira. Lehenengo ordainketa laguntza ematea ebatzi den hilabetearen azken egunean egingo da. Gainerako ordainketak hiruhileko naturaleko lehenengo hilabetearen azken egunean egingo dira.

Unean uneko gastuetarako GLLak laguntza ematea ebatzi den hilabetearen azken egunean ordainduko dira.

**Justifikazioa.** 4/2011 Dekretuaren 11. artikulua.

Esleipen-ebazpenean zehaztuko da gizarte-larrialdietarako laguntzaren onuradunak fakturak edo egindako gastuen ziurtagiriak aurkezteko betebeharra duela.

Laguntza justifikatzeko, gehienez hilabete bateko epea izango du onuradunak ebazpena jakinarazten den datatik zenbatzen hasita, ordainketa bakarreko laguntzen kasuan.

Zatikako ordainketak dituzten laguntzak justifikatzeko, gehienez hamabost eguneko epea izango du onuradunak zatikako ordainketak egiten diren unetik zenbatzen hasita.

Alokairu-gastuak edo gizarte-larrialdiko

los artículo 15 y16) del Decreto 4/2011

### **Plazo máximo de concesión de AES para gastos de carácter periódico**

En el año 2017 los expedientes de concesión de AES se tramitarán en dos períodos de seis meses. (Enero-Junio y Julio-Diciembre).

Finalizado el primer período se tramitará un nuevo expediente de AES en el segundo semestre al que se incorporará la solicitud y documentación complementaria necesaria para valorar la situación del solicitante.

### **Abonos**

Los abonos de AES para gastos de carácter periódico se realizarán por trimestres naturales. El primer pago se realizará el último día del mes de la resolución de concesión. Los restantes pagos se realizarán **el último día** del primer mes del trimestre natural.

Los abonos de AES para gastos de carácter puntual se realizarán el último día del mes de la resolución de concesión.

**Justificación.** Artículo 11 del Decreto 4/2011

En la resolución de concesión se establecerá la obligación de la persona beneficiaria de la ayuda de emergencia social de presentar facturas o justificantes de los gastos realizados.

El plazo máximo de justificación de la ayuda será de un mes a partir de la fecha de notificación de la resolución en el caso de un único pago.

El plazo máximo de justificación de las ayudas con pagos fraccionados será de quince días a partir del momento en el que se realicen los diferentes pagos parciales.

En el caso de las ayudas de emergencia



egoerara iritsi baino lehen etxebizitza edo bizitokia erosteko kredituen interesen edo amortizazioaren ondoriozko gastuak ordaintzea xede duten gizarte-larrialdietarako laguntzen kasuan, gastuen ziurtagiriak hiru hileko naturala bukatu ondorengo hamabost egunen barruan (apirilaren 15a, uztailaren 15a, urriaren 15a eta urtarrilaren 15a baino lehen) aurkeztu beharko dira.

Oinarritzko Gizarte-zerbitzuek laguntzaren justifikazioa kontrolatuko dute eta horren jarraipena egingo dute hamabost eguneko epean ziurtagiriak aurkezten denetik zenbatzen hasita.

#### **Gastuen ziurtagirien baldintzak**

Gastuak ordaindu izanaren ziurtagiriek pertsona fisiko edo juridiko igorlea identifikatzeko eta lokalizatzeko oinarritzko datuak jaso beharko dituzte, besteak beste, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (IFZ) edo Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia (NAN), gastuaren kontzeptua eta zenbatekoa.

Ordainketak bankuan egin ez badira, pertsona fisikoek igorritako ziurtagiriek horien hartu-agiriaren sinadura izan beharko dute, eta, pertsona juridikoen kasuan, araudi aplikagarrien arabera igorri behar duten faktura aurkeztu beharko da.

social destinadas a la cobertura de gastos de alquiler o de gastos derivados de intereses o de amortización de créditos contraídos con anterioridad a la situación de emergencia social como consecuencia de la adquisición de una vivienda o alojamiento, la presentación de los justificantes de gasto deberá realizarse en los quince días siguientes a la finalización del trimestre natural (15 de abril, 15 de julio, 15 de octubre y 15 de enero).

El seguimiento y control de la justificación de la ayuda por los Servicios Sociales de Base se realizará en el plazo de quince días desde la entrega de los justificantes.

#### **Requisitos de los justificantes de gastos**

Los justificantes de realización de los gastos deberán incluir los datos básicos de identificación y localización de la persona física o jurídica emisora, incluido su número de identificación fiscal (NIF) o número de documento nacional de identidad (DNI), el concepto de gasto y la cuantía correspondiente a los mismos.

En el caso de los pagos no bancarios, los justificantes emitidos por personas físicas deberán contener la firma del recibí por parte de aquéllas y, en el caso de las personas jurídicas, deberá presentarse la factura que las mismas deban emitir conforme a la normativa que les sea de aplicación.